

Ihes-gela

- Euskal Alien Nazioa ihes-gela, bai, esan?
- Egun on. Astebururako erreserba egin nahi dut.
- Noizko nahi duzu?
- Ostiralerako.
- Azaroaren 13rako, orduan... Itxaron pixka bat... Zenbat lagun izango zarete?
- Bost edo sei, ez gaude seguru.
- Bai, badago tokia. Goizez edo arratsaldez etorriko zarete?
- Nahiago dugu goizez.
- Zer ordutarako erreserbatu nahi duzue?
- Goizeko hamaiketarako, zelan?
- Primeran, baina, hamaiketan hasteko, hamar eta erdietarako hemen egon behar duzue.
- Ados. Hamar eta erdietarako han izango gara.
- Eman izena eta telefono-zenbakia, mesedez.
- Aratz Arrese-Igor, 63174260.
- Mila esker. Ostirala arte, orduan!
- Bai, eskerrik asko.

- Euskal Alien Nazioa ihes-gela, egun on.
- Kaixo. Erreserba egin genuen larunbaterako, baina ezin izango gara joan eta, ahal bada, eguna aldatu nahi dugu. Azaroaren hamabirako badaukazue tokirik?
- Bai, ostegunerako badaukagu tokia.
- Zein da zure izena?
- Lur Goitia.
- Oso ondo. Bai, hemen dago, 4 lagun, arratsaldean. Aldaketa egin dut. Arratsaldeko bostetarako egingo dizuet erreserba?
- Bai.
- Ados. Gogoratu bostetan hasteko lau eta erdietarako hemen egon behar duzuela. Osteguna arte, orduan.
- Bai, lau eta erdietarako han izango gara, lasai. Mila esker, adio.